

2017. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK

ZERBITZUAK EMATEAGATIKO EDO UDAL JARDUERAK EGITEAGATIKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Udal honek prezio publikoak ezartzen ditu erantsita dauden tarifetan zehaztutako zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik, Ordenantza honetan jasotako arauen arabera, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera.

2. Artikulua

Ordenantza udalerrri osoan aplikatuko da.

3. Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordainduko dituzte Zerbitzuak edo jarduerak hartzen dituztenek.

4. Artikulua

Prezio publikoen tarifak ordenantza honen eranskinean jasota daudenak dira.

5. Artikulua

Eskatutako edo egindako zerbitzu bakoitzagatik ordainduko dira zenbatekoak, eta ezingo dira murriztu dagozkien ataletan zehaztuta dauden zenbatekoekiko.

6. Artikulua

Ordenantza honetan jasotako Zerbitzuak emateko edo udal jarduerak egiteko, aldez aurretik eskaera egin beharko zaio Udal Administrazioari. Nolanahi ere, emanda bezala hartuko dira Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean, eta behin luzapenak eginda, prezioa ez ordaintzeak modu automatikoan erabakiko du zerbitzu hori ez ematea edo jarduera ez egitea.

7. Artikulua

Ordenantza honetan araututa dauden prezio publikoak ordaintzeko obligazioa zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denetik sortzen da.

Dena den, lehendik emandako edo luzatutako Zerbitzuak ematea jarduerak egitea izanik, dagozkien tarifetan zehaztutako denboraldi natural bakoitzeko lehen egunean sortzen da obligazioa.

8. Artikulua

Prezio publikoaren ordainketa horrela egingo da:

a) Zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea denean, udal kutxan zuzeneko diru sarrera eginda, beti ere zerbitzua eman edo jarduera egin aurretik, eta ezarrita dagoen kopurua ordainduz.

b) Eman beharreko zerbitzuen edo jardueren izaeragatik aldez aurretiko diru sarrera ezin bada egin, Administrazioak dagozkion faktura aurkezten duen unean.

c) Urteko izaera duten Zerbitzuak edo jarduerak baldin badira, prezio publikoen matrikulak amaitzen direnean, urte naturalen arabera.

9. Artikulua

Prezio publikoa ordaindu behar duen pertsonari egotzi ezin zaion arrazoiak tarteko direla, jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko da.

10. Artikulua

Prezio publiko horien zorrak premiazko prozedura administratiboaren bidez exijitu ahal izango dira.

11. Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen kitapenari, bilketari eta ikuskapenari dagokion guztian, Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa izango da aplikagarri.

ERANSKINA

A Epigrafea. Materialak

- Karpa, eguneko	50,00 €
- Karparen muntaia eta desmuntaia	1.100,00 €
- Hesi metalikoak, unitatea	3,10 €
- Erregadio mahuka, eguneko	4,65 €
- Oholtza: muntaia eta desmuntaia	80,80 €
- Oholtza, eguneko:	60,65 €
- Aluminioko eskailera, orduko:	2,25 €
- Saneamendu kanaberak: unitatea/orduko:	1,25 €
- Kaiolak, unitatea/eguneko:	1,10 €
- Aulkiak, unitatea/eguneko:	0,70 €
- Hautsitako aulki bakoitza:	13,90 €

B Epigrafea. Makineria eta ibilgailuak

- Puskatzeko mailua, eguneko:	17,20 €
- Sorgailua, soldadura ekipoa, belarra moztekoa eta beste batzuk:	11,55 €
Eguneko:	25,20 €
Orduko:	3,50 €
- Kamioia, ordu bakoitzeko:	60,65 €
- 4 x 4 ibilgailua, orduko:	36,85 €

C Epigrafea. Lengileria

- Kamioiaren txoferra, ordua:	24,10 €
- Obrako peoia, ordua:	21,10 €
- Obra ofiziala, ordua:	23,35 €

D Epigrafea. Kopia ateratzea

- Liburutegiko dokumentu fotok. (txuri/bel):	0,10 €
--	--------



- Liburutegiko dokumentu fotok. (kolore): 0,15 €
- Dokumentu kopiak CDn 8,00 €

E Epigrafea: Udal aterpetxea

- Pertsonako eta eguneko 18,55 €
- 10 lagun edo gehiagoko taldeak: 11,00 € lagun/eguneko
- Izarak alokatzea: 2,55 €

Arau aplikagarriak

1. A, B, C eta D epigrafeetan tasa ordaintzetik salbuetsita daude udal intereseko kultur elkarteak, sozialak eta kiroltakoak, baita ikastetxeak ere.

2. Urretxuko Udalak materiala utziko du erabilgarri dagoenean.

3. Materiala irteten denetik berriro itzultzen den Bitartean kontatuko dira egunak.

4. Zamanak, garraioaren kostua eta garraioaren kontratazioa eskatzailearen kontura izango dira, 1 puntuan daudenak izan ezik.

5. Zerbitzuaren kudeaketa
 - 5.1. Ondasun erabilera Alkatezari eskatu beharko zaio, gutxienez 15 egun lehenago.

 - 5.2. Arduradunak entregatuko du material aedo zerbitzuaren prestazioa.

 - 5.3. Materiala deskargatu eta gero, horren egoera egiaztatuko da eta prezioen kitapena egingo da. Kitapena jakinarazi ondoren, ordainketa egiteko borondatezko epea 30 egunekoa da, jakinarazpena jasotzen den biharamunetik kontatuta.

 - 5.4. Biltegitik ateratzen den unetik berriro itzuli bitartean materialean eragindako kalteak edo desagertzea persona edo entitate eskatzaileak hartuko du bere gain, eta faktura egingo zaio dagokion zenbatekoarekin.

 - 5.5. Karparen erabilera 2016ko martxoaren 17an egindako osoko bilkuran Udalbatzak onartu zuen Araudiak arautuko du.